

# EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAKO IKERTALDEEN JARDUERETARAKO 2016-2021eko DIRU LAGUNTZEN DEIALDIA

<p><b>Helburua</b> <b>(Art. 1.1)</b></p>	<p>Euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerak bultzatzeko laguntza ekonomikoetarako deialdia egitea eta oinarriak ezartzea da agindu honen xedea (talde horiek, betiere, ondoko arloetako ikerketa-programak garatzen badituzte: Arteak eta Humanitateak, Zientziak, Osasun Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak, eta Ingeniaritza eta Arkitektura).</p> <p>Hori guztia, oinarritzko finantzaketa bermatzeko, honako hauek lor daitezten: ikerketa-jarduerak sustatu eta erraztea; eta kalitate zientifikoa, inpaktu soziala eta nazioarteko ikusgarritasuna areagotzea, hain justu ere, EAEn egoitza duten unibertsitateetako departamentu eta institutu etako taldeek egindako ikerketei dagokienez.</p> <p>Ebaluazio positiboa gainditu ondoren, Eusko Jaurlaritzak errekonozitutako ikerketa-taldearen izaera lortuko da edo, bestela, izaera horri eutsiko zaio. 5. artikuluan seinalatutako laguntza gauzatzeko epeak amaitu arte, eutsi egingo zaio errekonozimenduari, salbu eta hura aldatzeko berariazko xedapena eman.</p>
<p><b>Exekutatzeko aldia</b> <b>(Art. 1.3 y 5)</b></p>	<p>Diru-laguntzak aurrekontuen erabilgarritasunaren arabera emango dira, eta sei urterako (2016-2021) edo hiru urterako (2016-2018) izango dira, 5. artikuluan xedatuta dagoen bezala.</p> <p>Exekutatzeko aldia hirutik sei urtera bitartekoa izango da, laguntzak emateko ebazpenean ezartzen denaren arabera. 2016ko urtarrilaren 1ean hasi, eta, betiere, 2021eko abenduaren 31 namaituko da.</p>
<p><b>Diru-baliabideak</b> <b>(Art. 2.1)</b></p>	<p>2016. urteko aurrekontu-ekitaldia eta 2017, 2018, 2019, 2020, 2021 eta 2022rako konpromiso-kredituak kontuan hartuta, deitutako diru-laguntza programaren guztizko zenbatekoa 26.000.000 euroko da,</p>
<p><b>Erakunde onuradunak</b> <b>(Art. 3)</b></p>	<p>Euskal Autonomia Erkidegoan duten unibertsitateak, betiere horietara atxikita baldin badaude ikerketa-talde nagusiak.</p>
<p><b>Ikerketa taldeen osaera</b> <b>(Art. 4.)</b></p>	<p>a) Doktoreak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Estatutuz edo kontratuz Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatei lotutako ikertzaileak edo irakasleak.</li> <li>- Zientziaren Euskal Fundazioa/Ikerbasque (Research Professor o Research Fellow) delakoaren bitartez kontratatutako ikertzaileak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten unibertsitatearen baten badute destinoa.</li> <li>- Osakidetza sare publikoko ospitaleei atxikitako ikertzaileak. Aipatutakoek parte hartu ahal dezaten, kontuan izango dira: direlako ospitaleei dagokienez,</li> </ul>

	<p>Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten unibertsitateen eta Osakidetzaren artean ezarritako hitzarmenetan hizpatutakoa.</p> <p>Ikerketa-taldeko ikertzaile nagusia: doktoreen kolektibo horretako kide bat izango da, eta kontratu iraunkorra eta dedikazio osoa edo asimilatua izan beharko ditu.</p> <p><b>BERRIA:</b> Ikertzaile nagusi izan daitezke ere Alboko irakaslearen kategorikoa izanik dedikazio osoa edo asimilatu duten doktoreak, baldin eta –eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean– egiaztaturik badute irakasle titular edo agregatu direla Kasu horietan, beharrezkoa izango da koikertzaile nagusi bat izatea. (art. 4.1.a)</p> <p>b) Doktore ez direnak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Estatutuz edo kontratuz Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza dute unibertsitateei lotutako ikertzaileak edo irakasleak.</li> <li>– Kontratuz Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza dute unibertsitateei lotutako ikertzaileak, prestatzen ari direnak.</li> </ul> <p><b>BERRIA:</b> Taldeetan gutxienez kideetarik hiru doktore izango dira. (art. 4.3)</p> <p><b>Ikertzaile bakoitzak deialdi honetako eskabide batean baino ezin izango du parte hartu.</b> (art. 4.8)</p>
<p><b>Lan-ibilbide bateratua</b> <b>(Art.4.2)</b></p>	<p>Ikerketa-taldeko kide gehienek lan-ibilbide bateratua egin izango dute 2010. urtetik eskabidea egin den egunera arte, eta erakutsi beharko dute euren ikerlerroen kohesioa eta bateratasuna, dela elkarrekin egindako zientzia-argitalpenen bidez, dela elkarrekin egindako proiektuen bidez, dela teknologia transferitzeko jarduera partekatuen bidez, dela ezagutza gizartera zabaltzeko jardueren bidez.</p>
<p><b>Gutxieneko ekoizpena</b> <b>(Art.4.4)</b></p>	<p>a) <b>Bi zientzia-argitalpen doktore bakoitzeko, 2010. urtetik laguntza-eskabidea egiten den egunera arte.</b> (Oharra: Baldintza hau ikertzaile guztiek batera bete beharko dute, hau da, ez banaka. Hortaz, ikertzaile bakoitzak ez ditu 2 argitalpen izan behar. Adibidez, 4 ikertzailek osatutako eskaera batek 8 argitalpen zenbatu beharko lituzke guztira. Kasu honetan, ikertzaile batek 5 argitalpenen ekoizpena egin lezake, beste batek 3 dituen bitartean).</p> <p>Lankidetzan argitaratutakoak behin baino ez dira zenbatuko. Horretarako, zientzia-argitalpentzat joko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Liburuak, liburu kapituluak, aldizkariak, ebaluazioa egiten zaien argitalpen elektronikoak eta zientzia-aldizkarietako artikuluak. Liburuei eta liburuko kapituluei dagokienez, <b>ISBN dutenak baino ez dira</b></li> </ul>

**hartuko kontuan.**

- ✓ Berrikuspenetan, argitalpen elektronikoetan eta zientzia-aldizkarietako artikuluetan, kanpo-ebaluazioa jasotzen dutenak eta Web of Science edo Scopus direlakoetan indexatuta daudenak baino ez dira zenbatuko.

**Egiaztatzeko prozedura:**

- Betekizuna konplitu dela egiaztatzeko aurkeztutako argitalpenen zerrenda, hala nola artikulua, liburuak, liburuen kapituluak, etab.; betiere, haiek zer urtetan eta zein aldizkari/liburu/argitaletxetan argitaratu ziren jasoz. Ikertzaile nagusiak sinatua.
- Artikulu zientifikoak. Artikuluen lehen eta azken orrialdeak jasotzen dituen dokumentua; aldizkariaren liburukiari edo zenbakiari buruzko informazioa ez bada jasotzen lehen orrialdean, hura egiaztatuko duen aurkibidea edo beste orrialde batzuk erantsiko dira.
- Liburua eta liburuetako kapituluak: Dokumentu bat, zeinetan jasotzen baitira portada eta titulua, egileak (edo argitaldaria) liburuen kredituak (argitaletxea, ISBN), aurkibidea, argitalpenaren urtea. Liburuetako kapituluaren kasuan, honako hauek ere jaso beharko dira: kapituluaren lehen eta azken orrialdeak; eta kapituluaren aurkibidea, zeinetan eskatzailearen ekarpena jasotzen baita.

**b) Bi doktore-tesi bukatuta eta defendatuta eduki beharko ditu, 2010. urtetik laguntza-eskaria egiten den egunera arte.**

Ikerketa-taldeko Ikertzaile nagusiak, 2015eko abenduaren 31n, 41 urtetik behera izan beharko ditu. 2010. urtetik eskabidea egin den egunera arte, zuzenduak izan beharko ditu, gutxienez, bi doktore-tesia, amaituak eta defendatuak, edo, bestela, 2010az geroztik inskribatutako doktore-tesiaren proiektudun, gutxienez, bi doktore-tesia zuzentzen ariko da. Bi baldintza horiekin konbinatu egin daitezke (amaitutako eta defendatutako tesi bi eta inskribatutako tesi bat).

**Egiaztatzeko prozedura:**

Unibertsitate eskatzaileek emandako dokumentuaren bidez egiaztatuko da tesia. Gutxienez, honako hauek jaso beharko dira: titulua, egilea, unibertsitatea, departamentua, data, helbidea eta kalifikazioa, adieraziz tesia nazioartekoa den ala ez. (Oharra: Ikertzaile bakoitzak inprimaki hau deskargatu ahal du GAURtik deialdiko aplikazioan dagokion atalean igotzeko)

**c) Ikerketa-proiektu bat izan beharko da jardunean, norgehiagokako deialdietan, 2013-2015 epealdian.**

	<p><b><u>Egiaztatzeko prozedura:</u></b></p> <p>Unibertsitate eskatzaileek emandako dokumentuaren bidez egiaztatuko da. Gutxienez jaso behar dituenak: proiektuaren titulua, ikertzaile nagusia, emandako diru-laguntza, erakunde finantzatzailea, erreferentzia eta indarraldia. (<b>Oharra:</b> eskabide bakoitzeko proiektu bakarra akreditatu beharko da –nahiz eta aplikazioan aipatutako denboraldian zehar garatutako proiektu guztien zerrenda aipatu beharra izan-). Inprimaki hau ikertaldeko kideen eranskinarekin batera bidaliko du Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak ikertzaileek aplikaziora igo dezaten.</p>
<p><b>Kanpoko kolaboratzaileak (Art.4.5)</b></p>	<p>Taldeak kanpoko kolaboratzaileak izan ditzake, baldin eta ikerketa-taldeak proposatu helburuekiko ibilbide komun-koherenteak demostratzen badituzte. Kanpoko laguntzaileak: irakasle bisitariak edota eskaria egin duen erakundeak ez diren ikertzaileak izan daitezke.</p> <p><b>Kolaboratzaileak EZ dira joko taldeko kideak, eta EZ dira kontabilizatuko goragoko 4. paragrafoan aipatu produktibitatearen mailan. (Oharra: ikertalde batean sartze aldera, beren jatorrizko erakundearen oniritzia aurkeztu beharko dute).</b></p>
<p><b>Administrazio-laguntzarako langileak (Art.4.6)</b></p>	<p>Administrazio-laguntzarako langileak eta ikertzaile ez diren ikerketa-laguntzarako teknikariak <b>ez dira taldekide moduan zenbatuko.</b></p>
<p><b>Ikertzaile nagusiaren betekizunak (Art.4.7)</b></p>	<p>Ikerketa-taldeak <b>ikertzaile nagusi bakarra izango du.</b> Salbuespen moduan, 4.1.a puntuan jasotako kasuetan onartu egingo da koikertzaile nagusi bat.</p> <p>Laguntza exekutatzen den bitartean (2016-2021) ikertzaile nagusiaren titulartasunean aldaketak egingo direla aurreikusiz gero, aldaketa horiek jaso eta justifikatu beharko dira, taldearen jardura-programan.</p>
<p><b>Baztertutako taldeak (Art.4.9, 4.11)</b></p>	<p>Deialdi honetan parte hartzetik bazter utziko dira ikerketa-taldeak eta eurretako kideak, baldin eta –eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean– 2016-2018 epealdiari dagokionez honako laguntza honen onuradun badira: Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen 2013ko martxoaren Ebazpenaz emandako laguntza (ebazpen horren bitartez, 2013-2018 unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerak bultzatzeko laguntzak esleitzen dira).</p> <p>Hautapen-prozesutik kanpo geldituko dira deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen ez dituzten edo betetzen dituztela garaiz eta forma egokian frogatzen ez duten ikerketa-taldeak.</p>
<p><b>Diruz lagundutako gastuak (Art.6)</b></p>	<p>Agindu honetan ezarritako ondorioetarako, honako gastuak lagun daitezke diruz: diruz lagundutako jardura motari erantzuten diotenak, baldin eta ezinbestekoak badira eta oinarri arautzailea hauetan ezarritako epearen barruan burutzen badira.</p>

	<p>a) Ikertzaileen kontratazioa, alegia, doktore titulua duten ikertzaileak edo prestakuntza hartzen ari diren ikertzaileak eta Ikerketa-laguntzarako langileen kontratazioa</p> <p>b) Ekipamendu txikia erostea, zientifikoa nahiz bibliografikoa. Ekipamendu horren unitate bakoitzak 18.000 eurotik behera balio behar du, BEZik gabe. Informatikako eta bulegoko ekipamendua erosteko ez da diru-laguntzarik emango.</p> <p>c) Jarduera-programa betearazteko egin behar diren beste gastu batzuk. Atal honek barruan hartzen ditu material suntsikorra, ikerketa-taldea nazioarteko bihurtzeko sartu diren sustapen-jarduerak, prestakuntzako eta ikerketaren zabalkundeko jarduerak, espedizioak edo landa-lanak, azpikontratazioak, ikerketa-zerbitzu orokorrak eta taldearen ikerketa-helburuekin zerikusia duen beste edozein gastu, baldin eta lan-planean sartu badira.</p> <p><b>Ez dute diru-laguntzarik jasoko estatutuz edo kontratuz erakunde onuradunekoak diren langile finkoen ordainsariak.</b></p>																																				
<p><b>Ebaluazioa.</b> <b>(Art.11)</b></p>	<p>Ebaluazioak aztertuko ditu batez ere I+G+B lanen kalitatea, taldearen produktibitatea eta 2010. urtetik eskaera-eguneraino egindako prestakuntza-jarduerak, eta bai proposatutako helburuen eite berritzailea eta hurrengo sei urteetarako jardueren bideragarritasuna ere.</p> <p>Ebaluazioan bereziki kontuan hartuko da, irizpide guztien zehar-lerro gisa, ikerketa-jardueren nazioartekotze-maila eta taldearen neurria edo kide-kopurua.</p> <p>Ebaluazio eta Prospektiba Agentzia Nazionalaren (ANEP) bidez egingo da eskabideen ebaluazioa, honako irizpide hauek jarraituz:</p> <table border="1" data-bbox="395 1294 1485 1908"> <thead> <tr> <th></th> <th>Irizpide a</th> <th>Azpirizpide a</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td><b>a) Oinarrizko irizpidea</b></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>- Produktzio zientifikoa</td> <td>35</td> <td></td> </tr> <tr> <td>    o Artikuluak aldizkari indexatuetan, liburuak, kapituluak, argitalpen elektronikoak ebaluazioarekin</td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>    o Beste argitalpen batzuk</td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>    o Gonbidatua izan deneko hitzaldiak eta biltzarrak</td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>- Prestakuntza-gaitasuna</td> <td>15</td> <td></td> </tr> <tr> <td>    o Doktoretza-aurreko eta doktoretza-ondoko kontratuak</td> <td></td> <td>10</td> </tr> <tr> <td>    o Tesiak, masterrak, graduondokoak eta doktoretzak</td> <td></td> <td>5</td> </tr> <tr> <td><b>b) Finantzaketa eta transferentzia</b></td> <td>20</td> <td></td> </tr> <tr> <td>- Norgehiagokako deialdietan proiektuak</td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>- Transferentzia. Ikerketa-hitzarmenak eta -</td> <td></td> <td></td> </tr> </tbody> </table>		Irizpide a	Azpirizpide a	<b>a) Oinarrizko irizpidea</b>			- Produktzio zientifikoa	35		o Artikuluak aldizkari indexatuetan, liburuak, kapituluak, argitalpen elektronikoak ebaluazioarekin			o Beste argitalpen batzuk			o Gonbidatua izan deneko hitzaldiak eta biltzarrak			- Prestakuntza-gaitasuna	15		o Doktoretza-aurreko eta doktoretza-ondoko kontratuak		10	o Tesiak, masterrak, graduondokoak eta doktoretzak		5	<b>b) Finantzaketa eta transferentzia</b>	20		- Norgehiagokako deialdietan proiektuak			- Transferentzia. Ikerketa-hitzarmenak eta -		
	Irizpide a	Azpirizpide a																																			
<b>a) Oinarrizko irizpidea</b>																																					
- Produktzio zientifikoa	35																																				
o Artikuluak aldizkari indexatuetan, liburuak, kapituluak, argitalpen elektronikoak ebaluazioarekin																																					
o Beste argitalpen batzuk																																					
o Gonbidatua izan deneko hitzaldiak eta biltzarrak																																					
- Prestakuntza-gaitasuna	15																																				
o Doktoretza-aurreko eta doktoretza-ondoko kontratuak		10																																			
o Tesiak, masterrak, graduondokoak eta doktoretzak		5																																			
<b>b) Finantzaketa eta transferentzia</b>	20																																				
- Norgehiagokako deialdietan proiektuak																																					
- Transferentzia. Ikerketa-hitzarmenak eta -																																					

	kontratuak		
	- Transferentzia. Ikerketako produktuak		
	<b>c) Helburuak eta laneko plana</b>	20	
	- Lan-plana		3
	- Ikerketa-lerroak		8
	- Líneas de investigación		6
	- Aurrekontua		3
	<b>d) Irizpide osagarriak</b>	10	
	- Taldeak lehiatzeko duen ahalmena		2
	- Egitura, operatibitatea eta belaunaldi-txandaketa.		2
	- Diziplinartekotasuna		2
	- Genero-oreka		2
	- Zabalkundea eta komunikazioa-ekintzak		2
	Oinarrizko irizpideen blokean, puntuazioaren % 60ko gutxieneko izaria ez gainditzeak eskabideari ezezkoa ematea dakar. Bloke horretan sartzen dira: a) produkzio zientifikoa, eta b) prestakuntza-gaitasuna.		
<b>Bateragarritasuna. (Art.13)</b>	Agindu honen babesean ematen diren laguntzak bateragarriak dira ikerketa berbera finantzatzea xede duen beste edozeinekin, <b>egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten unibertsitateek ikerketa-taldeei ematen dizkieten diru-laguntza orokorrekin izan ezik.</b>		
<b>Ebazpena. (Art.14)</b>	Hautaketa Batzordeak proposaturik, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpen bidez esleituko dira laguntzak, Agindua argitaratzen denetik harako sei hilabeteko epearen barruan. Aipatu epearen barruan, berariazko ebazpenik ematen eta jakinarazten ez bada, interesdunek ulertu ahal izango dute beren eskariak ezetsiak izan direla.		